



LEKITTO BEDARRA

LEKITTO BEDARRA

Baratze komunala



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Marinel-herri izateagatik da ezagun Lekeitio (Bizkaia) gurean: portua, arrantzaleak, hondartzak, turistak... Bestalde, lurrarekiko loturaz ere aberastasun handiko herria dela azaldu digu Lekitto Bedarra taldeko kide den Julian Arratek: "Lekeitio ortugintzarako kultura handia egon da betidanik, eta hori elikatze eta sustatzeko ideiarekin batu ginen gu". Duela lau urte taldea sortzeko asanblada deitu zutenean 50 pertsona baino gehiagok erantzun zioten deialdiari. Interesa bazegoela ikusita, antolatzen hasi ziren, egun Usotegi parkea dena lortzeko pausoak ematen.

Norbanakotik kolektibora

Usotegiko parkeko lurak Lekitto Bedarrari utzi zizkion Udalak taldearen eskariari erantzunez. "Herrian ortu txiki asko daude, familiakoak, baina guztiak hormaz inguratuta egoten dira eta barruan bakoitzak nahi eta ahal duena egiten du". Usotegiko lursaila komunean lantzean, jendeak beren esperientziak, haziak eta landareak konpartitzen ditu komunikazioa eta elkar laguntza bultzatuz. Parte hartzaileen adinaz eta soslaiaz galdetuta, 20 urte-tik 60 arteko tartea aipatu digu taldeko kideak, eta pasarte polita gehitu: "Aitona bat bere bi ilobekin etortzen da par-

kera, hor ikusten dituzu haurrak ere aitzurrarekin, aitona aholkuak emanez". Jende nahasketa hori egotea aberasgarri dela dio Arratek, harremanak sendotzeko eta jakintzen transmisioa egoteko.

Larunbatero hutsik gabe egiten dituzten auzolanez gain (gaur belarra moztu, bihar hazitegiak prestatzen ikasi, etzi tomate edo piperrak erein), bestelako ekimenak ere antolatzen ditu Lekitto Bedarrak: ikastaroak, hitzaldiak, Usotegi eguna; ikasiz eta gozatuz, aldi berean.

Auzolana bide

Hasieratik, lursailleko lanak auzolanean atera dituzte aurrera Lekitto Bedarra-koek. Izenak dioen bezala, garai batean uso-tokia zen parkea, eta hegaztiak egoten ziren dorrea dago bertan. "Dorrea erabat zahartuta zegoen, erortzen hasia. Auzolanean hasi ginen konponketa lanekin, eta herriko zenbait igeltserok parte hartzea lortu genuen". Orain, konponketekin amaitu eta gero, dorreko beheko solairua erabiltzen dute taldekideek sukalde bezala, botika naturalak eta beren edabeak prestatzeko.

Baratzea eta auzolana elkartzean lor daitekeenaren adibide polita Lekitto-koa. Ziur barazkiek bestelako zapore bat hartzen dutela Usotegin... ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

t @bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIK

Ekainak 15: Urretxu

Gaztetxean, 19:00etan.
Baserri Astearren barruan.

Ekainak 19: Agurain

Araba Euskaraz. Egun osoan,
Bizi Baratzea eta Altza Porru eskuratzeko
aukera eta kontsultategia.

Ekainak 22: Getxo

sOrtuak ekimeneko baratzeetan,
19:00etan. Eguraldi txarra izanez gero
aterpera aldatuko da.
Antolatzailea: Egizu Getxo Euskaldun.



**ALTZA
PORRU!**

AURKEZPEN-FESTA

Ekainak 16: Hernani

Karabeleko ekonekazaritza etxaldean,
18:00ak aldera.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

943 371 545